


Goienkaria

Martitzena / 2007ko ekainaren 19a / GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA



SAN JUANAK 2007

Arrasateko jaiak

ARGAZKILARIA GOIENKARIA



ZURE OPTIKA
ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Ondo pasau

San Juan Jaixak!

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87
Eskola Politeknikoaren ondoan



*Arrasateko Udalbatzak
San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
arrasatear guztioi*



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

kale inkesta

Zer gustatzen zaizu gehien jaietatik?



Marcela Fernandez
Langilea

Gehien gustatzen zaidana haurrentako giroa da: danborrada, su artifizialak, zezenak... Hala ere, haurrentako emanaldi gehiago antolatu beharko liratekeela pentsatzen dut.



Igor Letona
Langabea

Orain ez naiz ia irtetean, baina gehien gustatu izan zaidana egunean zehar egoten den giroa da. Gauza asko gauerako antolatzen dira, eta, nire ustez, egunak indartu beharko lirateke.



Irene Carmona
Langilea

San Juan festak beti gustatu izan zaizkit: zezenak, bigantxak, giroa... Nik uste dut programa ondo dagoela; niri, behintzat, gustatzen zait, eta ez nuke ezer aldatuko. Jai politikak dira.



Eurne Arrizabalaga
Langilea

Errementari Dantza, bezpera gaua eta Dragoi Jana gustatzen zaizkit gehien. Hala ere, buruhandien eguna faltan igartzen dut; orain, hirugarren eguna huts samar dago.



Jokin Arakistain
Ikaslea

Festetako ekimen guztiak gustatzen zaizkit niri, eta batez ere gauekoak; baina, hala ere, kontzertuetara oraindik ez naiz joaten. Programa egokia da, nire iritziz, ez nuke ezer aldatuko.



Mikel Orobengoa
Langilea

Guk, adibidez, lagunarteko afaria egiten dugu urtero bezperan; baina hori ez dago egitarauan. Egia esan, egunez ekintza gehiago antolatu beharko lirateke; haurrentako, behintzat, bai.

AURKIBIDEA

- Egitaraua > 04-05
- Txosnak > 06-07
- Eguzkilaru > 09
- Les Enfants > 10
- Danborrada > 13
- Makala jasotzea > 15
- Errekortadoreak > 16
- Dragoi Jana > 18
- Kontzertuak > 20
- Nagusiei omenaldia > 22
- Erraldioen konpartsa > 24
- Margo lehiaketa > 25
- Camp dantzaldia > 26
- Errementari dantza > 29
- Toom pak taldea > 30
- San Juan sua > 31
- Hegaluze parrillada > 32
- Irrati/telebista > 34
- Segway > 35
- Xakea eta arku tiroa > 36
- Pilota partidua > 37
- Musika banda > 38


argazki zaharra

1965eko egitarauan jasotakoak

1965. urtean, San Juan jaietako egitarauarekin batera, aldizkari bat banatu zuten Arrasaten. Aldizkari hark, 1964an herrian sortutako mugimendu baten berri ematen zuen, hain justu, kultura herrikoiari bultzada emateko hainbat herritarrek sortutako mugimenduaren berri. Kultura sustatzeko ahalegin horretan, lehen Euskal Jaia ospatu zuten 1964an. Hori, horrela, 1965ean San Juanetako egitarauarekin batera banatutako aldizkari hark lehen Euskal Jai haren argazkia zeukan. Alboko hori, hain justu.

Irudian ageri da danbolinari eusten ezkerreko aldean Julian Llodio eta haren atzean dagoen emakumea Maite Ormaetxea da. Danbolinari eusten eskumako aldean lehenengoa Pedro Otadui da eta haren atzean Eriberto Abasolo eta Joxe Murgia daude eta azken bi horien artean dagoen emakumea Mari Carmen Mazmela da. Lehen planoan dagoena, berriz, Angelines De la Maza da, zinta eusten dagoen neskatua, Pilar Otadui.

Argazkia: Eugenio Ibarra.



Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Xabi Urtzelai, Ubane Madera, Edu Mendibil, Arantzazu Ezkibel, Jon Berezibar, Mirian Biteri, Amaia Zaldua, Aintzane Irizar, Oihana Elortza **Maketazioa** Oxel Arrieta **Publizitatea** Amaia Mundiñano, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila Tel.: 943 25 05 01/02 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
EGOITZA NAGUSIA
ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 Tel.: 943 71 25 11 Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 151 posta-kutxatila Tel.: 943 79 86 21 Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 79 21 00 Posta-e: publi@goiena.com
Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 ISSN: 1577-1210 • **Tirada:** 7.000 ale

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurilaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko udala



OID erakundeak ikuskatutako astekaria



Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06



EGITARUA

JAIETAKO EGITARUA

Zapatua, 23 San Juan bezpera

14:30 Txosna batzordeak antolatuta, KOADRILEN

ARTEKO BAZKARIA.

16:00 Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

16:00 ETXAFUEGOAK eta BONBA JAPONIARRAK, Herriko Plazan.

16:30 Gari, Montxo eta Joselontxo PAILAZOEN EMANALDIA, Herriko Plazan.

17:00 XAKE norgehiagoka, Biteri plazan. Leintz bailarako selekzioa Gipuzkoakoaren kontra.

18:00 MAKALA JASOTZEA, Herriko Plazan.

18:00 PINTURA lehiaketaren SARI EMATEA, Monterron jauregian.

19:30 SALBEA, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

21:30 ERREMENTARI DANTZA. Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek hartuko dute parte.

22:30 SAN JUAN SUA, Herriko Plazan.

23:00 NAGUSIEN DANBORRADA, herriko kaleetan.

Ondoren, GAUBELA taldearekin DANTZALDIA, Herriko Plazan.

Domeka, 24 San Juan eguna

08:30 DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaostea eta Laubide.

Gero Zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

11:00 MEZA NAGUSIA, San Juan Bataiatzailearen parrokian.

11:00 Arrasateko ERRALDOIEN eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAren KALEJIRA.

11:15 Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa eta musika banda.

12:00 OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA, Herriko Plazan.

12:30 OMENALDIA 80 URTETIK GORAKOEI, Abaroan.

13:00 Les Enfants, Napoleonen soldaduak herriko



ENTZIERROA GOIZERO EGONGO DA.

kaleetan ibiliko dira.

13:00 KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik, Monterron parkean.

Egitaraua:

Jazz suite D. Shostakovitch.

Ivanhoe. B. Appermont

Aitziber eta Jon. T. Muxika

Car. M. Peeters.

Zorba. M. Theodorakis.

Viva La Pepa. M. San Miguel.

Kumbayah. K

Gora Arrasate. J. Artzamendi

San Juan. J. Artzamendi (konponketak)

Zuzendaria: Iker Olazabal

18:00 ARKU TIRO LEHIAKETA, Zaldibar pilotalekuan. Arku tiroa praktikatzeko aukera ere izango da.

19:00 BERTSO-TRIKI POTEOA, Txosna batzordeak antolatuta.

19:00 Arrasateko gaitarien KALEJIRA.

Aldape Taberna Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU SAN JUANETAN!

Eguneko menua, asteburuetakoko menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE

Tel.: 943 79 63 69



EGITARUA

20:00 Trapu Zaharra taldeak *Visa Vis* ANTZEZLANA egingo du, Seber Altube plazan.

21:00 DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Antolatzaileak: AED eta AEK.

22:00 KONTZERTUA, txosnagunean, Edan taldearekin.

23:00 SU ARTIFIZIALAK, Astondoa pirotekniaren eskutik. Santa Barbaratik.

23:30 ERROMERIA, GOZATEGI taldearekin, Herriko Plazan.

23:30 KONTZERTUA: Gose eta Vanexxa taldeekin, Monterron parkean.

**Astlehena, 25
Haurren eta
gaztetxoaren eguna**

08:30 DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

09:00 ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.



ZAPATUAN SAN JUAN SUA EGINGO DA.



NAGUSIEN DANBORRADA ZAPATUAN, SAN JUAN BEZPERA, IZANGO DA.

Gero Zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan.

09:30 Haurrak eta gaztetxoak esnatzeko DIANA herrian barrena.

10:30 Haurrek eta gaztetxoek, herriko trikitilariarekin batera, ONGI ETORRI egingo diote EGUZKI LARURI, Biteri plazan.

Gero, JOLAS PARKEA irekiko dute, 11:30ak arte, Biteri plazan Zaldibarko frontoian.

13:00 *Mexiko lindo* KALEJIRA, Ballet Folclorico Ciudad de Guadalajara taldearekin.

13:30 APAR JOLASA, Biteri plazan. Bainujantziak eramatea komeni da.

14:30 HERRI BAZKARIA, txosnagunean.

16:30-19:00 EGUZKI LARUREN JOLAS PARKEA, Zaldibarren eta Biterin. Merienda eta zurrupaki tropikala banatuko dituzte.

17:00 Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Uarkapen. Sarrera 15 euro.

Saralegi-Apraiz//Mendizabal I.a-Oteiza

Olaizola II.a-Argote//Bengoetxea VI.a-Zearra

17:00 JINKANA, txosnagunetik abiatuta.

19:00 HAUR DANTZALDIA: *Gaur jaia* ikuskizuna, Biteri plazan.

Ondoren, EGUZKI LARURI agurra.

20:00 Teatro Zero taldeak *Metafora* izeneko ANTZEZLANA egingo du, Seber Altube plazan.

22:30 DANTZALDIA, Nueva Alaska orkestrarekin, Herriko Plazan.

22:30 PERKUSIO IKUSKIZUNA Monterron parkean. Toom Pak taldearekin. Birziklatutako materialak erabiltzen dituzte.

00:00 KARAOKEA, txosnagunean.

Martitzena, 26

08:30 DIANA, Arrasateko gaita-joleekin.

09:00 ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten; Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu; eta Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.

Gero Zaleendako BIGANTXAK zezen-plazan. LOS

INCANSABLES txarangak girotuko du ikuskizuna.

11:00 ERREKORTADOREEN ESKOLA, zezen-plazan.

11:00 Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN KONPARTSAREN KALEJIRA.

12:00 SEGWAY ibilgailuekin ibiltzeko aukera, Biteri plazan.

12:00 KALEJIRA trikitilariarekin.

12:00-14:30 Eusko Labelen eskutik HEGALUZE eta HEGALABUR dastatzea Herriko Plazan. Bildutako dirua GOIKOBALU abesbatzarendako izango da.

18:00 ERREKORTADOREEN ESKOLA gaztetxoendako, zezen-plazan.

18:00 Hortzmuga taldearen *IZK KALE ANTZERKI* IBILTARIA.

19:00 Eneko Barberenaren BAKARRIZKETA, txosnagunean. Ordu horretatik aurrera edariak merkeago izango dira.

19:30 SOKA DANTZA, Herriko Plazan.

20:00 Erdizka Lauetan taldearen DANTZALDIA, Herriko Plazan. Dantza errazak ikasi eta egiteko aukera ezin hobea.



DOMEKAN HAURREN EGUNA IZANGO DA.

M E N D I Z A B A L okindegia

egunero zure alboan!

ARRASATE
Seber Altube 2
943 79 89 60

eya Ondo pasatu
San Juanak

**estilo guztietako
lanparak**

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE



PATRICIA
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
KOLLIFLEX
WONDERS
SACHA LONDON
GEORGES
PETUSCO
LUPO
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS

OINETAKOAK

Yoar

Biteri 13 € ARRASATE € 943 79 21 71
Barrenkalea 9 € BERGARA € 943 76 22 86

TXOSNAK

Bost eguneko egitaraua egin du Txosna batzordeak

Txosna-gunea

Egubakoitzetik martitzeneraEkainaren 22an
19:00ean zabalduko dituzte eta egunero goizaldean itxi

Izan zuten arrakasta kontuan hartuta, jinkana eta 'Ordu alai' izeneko proposamenak errepikatuko dituzte aurtengo festetan

AMAIA ZALDUA

Txosna batzordea prest dago jada San Juan jaietarako. Eskaintza zabala egingo du oraingoan ere: bazkariak, musika, jolasak... Festetan jendeak ondo pasatzea espero du.

Aurten ere, jai giroa sortzeko asmoz, Arrasateko Txosna batzordeak egitarau entretenigarria antolatu du. Batzordeak espero du arrasatear guztiek jaietan ondo pasatzea, hori da helburuetako bat; eta hori lortzeko, hainbat ekitaldi izango dira.

Txosna batzordekoak oso gustura daude, aurreko urteetako San Juan festetan jendeak oso ondo erantzun duelako antolatu dituzten ekitaldietan.

Inoiz baino gogo handiagoarekin aritu dira batzordeko kideak burubelari lanean, eta aurten ere jendearen parte-hartzea espero dute. Bestalde, kontuan hartu dute jendeak zeri erantzuten dion,



Arrakastaz eta jai giro politetan egin izan da beste urte batzuetan koadrilen bazkaria; aurten ere hala izatea espero dute.

GOIENKARIA

eta horren arabera eskaintza proposatzea erabaki dute batzordeko kideek.

TXOSNA BI

Aurten bi txosna izango dira, eta, urtero bezala, Monterron azpian dagoen zelaian kokatuko dituzte.

Txosna batzordearen aurtengo berrikuntza da egitaraua bost eguneko dela; lan handiagoa ekarri dion arren, asteburua aprobeztatzea pentsatu du

Txosnen irekiera arratsaldeko zazpiak aldera egingo dute egunero, eta, egunaren arabera ordutegia zertxobait aldatuko den arren, goizaldera arte izango dira zabalik jai giroan jarraitzeko asmoa dutenendako.

Iaz ogitartekorik ez eskaintzea erabaki zuen batzordeak, lan handia zelako, eta aurten ere erabaki hori hartu du. Beraz, ez da egongo jateko eskaintzarik, edatekoa bakarrik egongo da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Ekitaldi guztiak txosnetan hasi edo egingo dituzte, eta herritarren parte-hartzea eskatzen dute batzordeko kideek, "jaiak herriarenak direlako eta herriak bultzatu egin behar dituelako", hain zuzen ere.

Egun argiz, zein gauez, ekitaldi bat baino gehiago daude antolatuta eta jendearen erantzuna espero dute aurten ere.

Egunez herri bazkariak, poteoak eta jolasak izango dira nagusi, eta gauez, berriz, musika eta umorea uztartuko dira txosnetan.

BATZORDEAREN HELBURUAK

"Helburu nagusia txosna giroa indartzea da, eta jaiak herriarenak egindakoak nahiz herriarenak egindakoak izan behar dute." Parte-hartzea da, beraz, batzordeak azpimarratu nahi duena.

egizabal
oinetakoak

ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601
BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228

San Juan jai zorientsuak opa dizkizuegu!

**Altzariak
eta
dekorazioa**

Ondo pasatu San Juanak!

Etxe
mobiliario y
decoracion

Ferrerias 17 Tel. eta faxa: 943 79 03 17
e-posta: etxe-mobilario@hotmail.com

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Bi herri bazkari antolatu dituzte bost egunerako

Azkeneko egunean monologoa eta 'Ordu alai' protagonista

Horrez gain, festak ondo pasatzeko direla diote Txosna batzordeko kideek, eta, beraz, euren eskaintzari erantzunez, jendeak giro ona sortzea espero dute. Guztien artean egin duten lanak emaitza onak ematea nahi dute.

Batzordeak herritar guztiei begira dagoen egitaraua prestatu du, eta herritar guztien arteko jai giroa sortu nahi dute horrekin.

Azkenik, jendea ekitaldi guztietara agertzeko dei egiten dute, ez dute emanaldi zehatzik azpimarratzen: "Azpimarratu nahi dugun ekitaldirik ez dago; gustatuko litzaiguke herritar denek egitarau guztian parte hartzea eta oso ondo pasatzea".

IAZKOAREKIN GUSTURA

Txosna batzordea gustura dago iaz egin zituzten proposamenek arrakasta izan dutelako, eta urteroko par-



ENEKO BARBERENA Arrasatearrak bakarriketa egingo du martitzenean.

GORKA MORRAS

te-hartze maila handia izan den arren, iazko berrikuntzek izandako erantzuna azpimarragarria dela dio: "Urteroko egitarauarekin jarraituko dugu. Iaz, adibidez, jinkanak eta *Ordu alai* delakoak arrakasta handia izan zuten eta aurten ere izango dira".

Jinkanako jolasetan jende ugari hartu zuen parte, eta aurten ere hala espero dute. Bestalde, azke-

Egitaraua

22, egubakoitza

19:00: Txosnen irekiera
23:00 Kontzertua txosna gunean

23, zapatua

14:30: Kuadrilen arteko bazkaria
Makalaren igoera
Manifestazioa

24, domeka

19:00: Triki-poteoa.
22:00: Erromeria EDAN taldearekin.

25, astelehena

14:30: Preso eta iheslarien aldeko bazkaria.
17:00: Ginkana txosnetan
Kontzertua txosna gunean.
24:00: Karaokea

26, martitzena

19:00: Eneko Barberenaren bakarriketa.
Gero: *Ordu Alai*

Oharra: Egitaraua zehazteke zegoen erredakzioa ixterakoan.

neko eguneko *Ordu alai*a apustu handia izan zen arren, lortu zuen bere helburua, eta edariak merkatzea eraginkorra izan zen festei indar handiagoa emateko.

Herri bazkarietan biltzen den jendetza ere aipagarria da Txosna batzordeko kideen ustez, eta, aurten ere, aurrekoetan bezainbeste jende animatzea espero dute. Hauxe gaineratzen dute: "Harremanak egiteko eta giro ona sustatzeko aukera onak dira herri bazkariak".

EDAN TALDEA ETA MONOLOGOA

Txosna batzordeak antolatutako ekitaldien artean, Edan taldearen kontzertua izango da. Emanaldia ekainaren 24an izango da, domeka, 22:00etan, txosna gunean.

Iurretatik datorren musika talde horrek erromeria eskainiko du.

Edan (tribute to Egan) taldeak musika, umorea eta antzerkia nahasten ditu, eta, beraz, jendea ez aspertzeko moduko saioak egiten ditu.

Beste eskaintza bat da Eneko Barberenaren bakarriketa. Arrasateko idazle gazteak bakarriketa egingo du txosna gunean azkeneko egunean, martitzenean, arratsaldeko zazpietan.

San Juan festak ondo bukatzeko, *Ordu alai*a izango da aurten ere azkeneko egunean, Eneko Barberenaren bakarriketa amaitu ondoren.

Askotariko eskaintza izango dugu, hortaz.






Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94





MURUAMENDIARAZ

GOZOTEGIA

Jai goxo-goxoak izateko

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34 *Ondo pasau San Juanak!*





Zabalkunde **haundiko** enpresa, beti **zure** ondoan

GIAUTO



ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA · ARRASATE
OLABERRIA · ANOETA

Tel. 902 345 123 · www.giauto.es
clientes@giauto.es



EIBAR · OLABERRIA

Tel. 902 345 225 · www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es



BERGARA

Tel. 943 763 347 · www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es

MENDAUTO



ELGOIBAR · DONOSTIA · IRUN · LASARTE
ARRASATE · TOLOSA · BEASAIN

Tel. 902 345 335 · www.mendauto.com
hyundai@mendauto.com

KUAUTO



DONOSTIA · LASARTE · ELGOIBAR

Tel. 902 345 365 · www.kuauto.net
kuauto@kuauto.net

EUSKOAUTO



PASAIA · ELGOIBAR · BERGARA · OLABERRIA

Tel. 902 345 245 · www.euskoauto.toyota.es
toyota@euskoauto.com

UMEEN EGUNA

Eguzkilaru goiz osoan izango da umeekin

Jokoak, tailerrak, apar jolasa, 'Gaur jaia' ikuskizuna: Txatxilipurdik askotarikoak antolatu ditu umeendako

MONIKA BELASTEGI

Gaztetxoek erabat gozateko moduko egitaraua prestatu du Txatxilipurdik. Aurten bi gunetan izango dira ekintzak: Zaldibarren eta Biterin.

Zain izaten ditu Eguzkilaruk Arrasateko neska-mutikoak. Aurten ere halaxe izango da, eta, hutsik egin barik, urteroko zitari eutsiko dio laru koloreko eguzkiak. 09:30ean iritsiko da Biteri plazara eta han egingo diote haurrek ongiatorria. Gero, guztiak elkarrekin Zaldibar pilotalekura joango dira kalejiran eta hara iritsi bezain laster jaiari

hasiera emango dio Eguzkilaruk. Gainera, aurten, umeekin jolas egiten gertuko da Eguzkilaru, beste urte batzuetan ez bezala.

GOIZEAN BARRENA

Askotariko jolas eta tailerrak antolatu ditu Txatxilipurdik umeendako. Orain arte ekintzok Zaldibarren egin badira ere, aurten eremua zabaldu egin dute: ekintzetako batzuk Zaldibarren izango dira eta beste batzuk alboan, Biteri plazan.

Jolas parkeari dago-kionez, honakoak egongo dira, besteak beste: kart autoak, gargantua igel erraldoia, txirrista puzgarria eta pilota etxea. Tailer edo eskulanei dagokionez egongo dira, besteak beste: tatuajeak, globofle-



Eguzkilaru goiz osoan barrena izango da aurten umeekin, aurreko urteetan ez bezala.

GOIENKARIA

xia, musu margotzea eta argazki tailerra Eguzkilarurekin.

Horrez guztiaz gain, 13:30ean, apar jolasa egongo da Biteri plazan. Eremua aparrez beteko dute eta

neska-mutikoek jolas egiteko aukera izango dute han. Hori horrela, Txatxilipurdiko kideek gomendatu dute umeak bainujantziarekin eramatea, arropa busti egingo zaielako.

ARRATSALDEAN GEHIAGO

Arratsalderako ere plan polita antolatu dute Txatxilipurdikoek. 16:30etik 18:30era bitartean, jolas parkea eta eskulan txokak zabalik egongo dira. Hala, umeek tatuajeak, pintxo eta zurrupaki tropikala eta grafitiak egin ahal izango dituzte.

Egunari bukaera emateko, gaztetxoek dantza egin ahal izango dute *Gaur jaia* ikuskizunarekin, eta gero, agur esango diote Eguzkilaruri.

Biterin apar jolasa egongo da; hala, Txatxilipurditik gomendatu dute seme-alabak bainujantziarekin eramatea, arropa ez bustitzeko

Biteri eta Zaldibar

Astelena, egun osoan

10:30ean egingo diote ongiatorria Eguzkilaruri eta 19:00etan, agur

'Gaur jaia' dantzarako ikuskizuna

Adin guztietako ikusleentzako animaziozko eta musika ikuskizun bat da *Gaur jaia*. Baina batez ere hurrei zuzenduta dago eta hainbat elementu tartekatzen ditu: zuzeneko musika, akziozko eta parte-hartze jolasak -puxikekin, uztaiekin eta jausgailuarekin-, lehiaketak, dantzak, pailazokeriak... Horiek guztiak elkarren atzetik doaz txikiek eta handiek bat-batekotasun guztiarekin parte har dezaten, ez era konpetitiboan.

Gaur jaia ikuskizuna 18:30ean izango da, Biteri plazan. Ordu eta laurden inguru iraungo du eta horren ondoren agur egingo diote Arrasateko neska-mutikoek Eguzkilaruri, datorren urtera arte.

ANTZERKIA

Les Enfants konpainia xelebreairen kalejira

Les Enfants taldeak antzerkia, musika eta umorea uztartzen ditu; Arrasatera iritsiko dira San Juan egunean

EDU MENDIBIL

Napoleonen aldeko soldadu konpainia xelebrea iritsiko zaigu domekan, San Juan Egunean. Les Enfants taldeak jai giroa ekarriko du.

Debagoieneko hainbat herritan oso ezagunak diren McKensy's Clan Band eskoziarren tartekoak dira Les Enfants *frantsesak*. Azken horiek ere antzerkia, musika eta umorea uztartzen dituzte euren emanaldietan, eta domekan, ekainaren 24an, Arrasatera iritsiko zaizkigu. Ustez Napoleonen soldaduak badira ere, gerran borrokatzea baino nahiago dute jaietako giroan murgildu.

SOLDADU BAKEZALEAK

Sei lagunek osatzen dute Les Enfants konpainia xelebrea, eta Napoleonen soldaduen jantziekin eta kanoi eta guzti etorriko dira gurera. Euskal Herri-



Sei lagunek osatzen dute Les Enfants konpainia. San Juan Egunean umorerik ez da faltako haiekin.

GOIENKARIA

ra egiten duten lehen bisita da honakoa: ekainaren 23an Barakaldon eta San Juan Egunean Arrasaten izango dira Les Enfants; eguerdiko ordu batean ekingo diote Arrasateko

Gure artean oso ezagunak diren McKensy's Clan Band eskoziarren tartekoak dira Les Enfants

kaleetan barrena desfilatzeari. Zalantzarik gabe, umorea da ikuskizunaren ardatza. Esan bezala, Napoleonen soldadu parrandazaleak dira Les Enfants: kanoiak ez du bonbarik

jaurtitzen, konfeti baizik. Bestelako joko piroteknikoak ere badira tartean. Les Enfants bihurriek mar-txa militarrek baino nahiago dute doinu alaiagoak jo. Danborren eta txirulen laguntzaz arrasatearrak dantzan jarriko dituzte. Ibilbidean zehar *gag* komiko ugari eskainiko dituzte, eta Monsier Le Commandant deritzon konpainia-buruak nahikoa lan izango du bere soldaduak dominatzen. Jendearen konplizitatea lortzea da Les Enfants taldearen helburu nagusietako bat.

JENDEAREN PARTE-HARTZEA


Arrasatera ekarriko duten ikuskizuna joan den maiatzean estreinatuta zuten, eta, taldeko arduradunen arabera, jendearen harrera bikaina izan da: "Jendeak ondo pasatzea eta gerraren gaineko ikuspegi ironikoa eskaintzea da gure asmoa". Arrasateko emanaldian ez da sorpresarik faltako: Les Enfantsekin ausartzen direnek pauso bat aurrera eman baino ez dute egin behar...

Jai zoriontsuak izan!

Garibai etorbidea z/g
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11




"la Caixa"



Markiegi

A R R A S A T E

Olarte 2 Tel.: 943 79 15 32
<http://goiena.net/blogak/markiegi>





*Eraman dotoretasuna
zure etxera*




gelatuz s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51



Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA

San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan



- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik



NAGUSIEN DANBORRADA

'Diana txikia' izeneko pieza joko dute lehenengoz

San Sebastian Egunean Azpeitiko danborradako 50. urteurrena ospatu zuten, eta SUDCekeo hainbat lagun gonbidatu zituzten hara; orduan jotako 'Diana txikia' pieza joko dute Arrasaten

XABIER URTZELAI

Aurtengo nagusien danborradan egongo da berritasunik. Izan ere, ohiko piezei beste bat gehituko zaie: *Diana txikia*; Azpeititik ekarritako pieza da, ikasteko erraza eta erritmo polita daukana.

Horixe esan digu SUDCekeo kide Andoni Altzelaik: "Urtarrilean, San Sebastian Egunean, Azpeitian egon ginen gonbidatuta, hango danborradaren 50. urteurrena ospatzen zuten-eta. Euskal Herrian danborrada ospatzeko ohitura dagoen herrietako ordezkariak gonbidatu gintuzten, eta geuk ere parte hartu genuen danborrada hartan. Hainbat pieza izan genituen aukeran, eta han jotako *Diana txikia* pieza Arrasateko danborradara ekartzea erabaki genuen. Hori izango da aurtengo berritasuna".

ZORTZI KONPAINIA

Azkeneko bi urteotan bi konpainia berri animatu dira San Juanetako danborradan esku hartzera, eta horrek izugarri biziberri-tu du danborrada: "Orain dela zortzi urtetik hona danborradak gora egin du. Beherakada nabarmena izan zuen, baina orain dela bi urte Arrano konpainia batu zen, eta iaz Santa Marinakoak animatu ziren. Hala, danborrada berriro ere sasoiko dagoela esango nuke", esan digu Altzelaik.

Bizpahiru aste entseatzin ibili eta gero iritsiko dira konpainia guztiak danborradara. Hala, danborra joko dute Eskoziarrek, Beti Gaztekoek, Txalapartakoek eta Traje urdindunek (horrela dute izena). Horiekin batera, kupela astinduko dute Arranokoeak, Santa Marinakoek, Montxon konpainiak eta Beti Alaiakoeak. Hori horrela, ia dena gertu dago zapatuko hitzordurako: "Egia esan, danborradako piezek ez dute



Irudian Beti Gazte konpainia. Kide guztiak emakumezkoak dira.

GOIENKARIA

sekretu handirik, eta, apur bat entseatzuz gero, erraz jotzen dira. Hori horrela, hasieran normala da apur bat galduta ibiltzea".

Ibilbideari dagokionez, urtero moduan Nafarroa

etorbidean hasiko dute danborrada, eta Mondragon hotelaren atzetik Araba etorbidean -Kontzezinon- buelta erdi eman eta Garibain zehar Maalara egingo dute. Amaitzeko,

Maalatik Portalaira, eta handik Herriko Plazara egingo dute: "Udalarekin berba egingo dugu komentatzeko danborrada motz gera ez dadin Iturriotzik gora egingo dugula, Erdi-

ko kaletik jaisteko. Horrela, ibilbidea apur bat gehiago luzatuko dugu".

Ikusi egin beharko da eguraldiak laguntzen duen. Danbor hotsek ez dezatela lainorik ekarri.



**Urteko asteburu guztietan eskaintza berezia logela bikoitzean:
48,60 euro + BEZ-a.**

Ondo pasau San Juanak!

Biteri Etorbidea 16. ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 Faxa: 943 71 23 43
www.hotelmondragon.com
posta-e: hotelmondragon@hotelmondragon.com





AMETS,
BENGOA,
BOLIÑETE,
BRANKA,
HAIZEA,
IAMAI,
ITZALA,
MONTE,
OSTANTZ,
PLUS ULTRA,
RUMBA



**Errementari dantza, entzierroak,
danborrada, salbea, san juan sua,
dragoi jana, su artifizialak...
eta nola ez, giro eta musika paregabea!**

Ondo pasau San Juan jaixetan!

MAKALAREN IGOERA

Elorregitik plazara 20 metro inguruko makala

Koadrilek jasoko dute makala; 14:30ean koadrilen arteko bazkaria egingo dute eta 16:30ean hartuko dute makala

UBANE MADERA

Maalan dute hitzordua koadrilek, makala hartzeko. Tente, berriz, 18:00ak inguruan ipiniko dute, Herriko Plazan. Bitartean, txikiteoa egingo dute, makala aldean hartuta.

Elorregi auzotik eskuratuko du Udalak, beste urte batez, makal luze eta fina, herriko jaien ikurrerako bat den zuhaitza. San Juan bezperan ipiniko dute Herriko Plazan eta hantxe geratuko da jaiak bukatu artean.

LUZEA, BAINA FINA

20 metro inguru izango ditu zuhaitzak: "Asko jota 21-22 metrokoa izango da, handiagoa ez, bestela plazan ez da-eta sartuko", azaldu du Jose Luis Etxeberria udaltzainburuak.

Azken horrek eta Cespa enpresakoek aukeratu dute makala. "Elorregin du Udalak makaldun lursail bakarra, eta handik ekaritzen dugu urtero", gaineratu du.

Horren harira, argitu du zer dela-eta makalak azken urteotan oker samarrak diren: "Ganorazko askorik ez dago; denak elkarrekin daudenean zuzenak eta finak dira, baina entre-



Polea bidez lagunduta igoko dute koadrilek makala; argazkian, iazko igoera.

GOIENKARIA

sakaren bat eginez gero, haizeak okertu egiten ditu".

MAKALAREKIN KALEZ KALE

Kontuak kontu, Elorregitik makala hartu eta ekainaren 23an Maalako Erra-

baleraino eramango dute udal langileek. Han, koadrilak izango dituzte zain: "16:30ean Maalara joango gara makalaren bila, baina 18:00ak ingurura arte ez dugu makala igoko plazan,

ordura arte pailazoak ibiliko dira-eta han", adierazi dute Txosna batzordetik, ekimen hori antolatu duen batzordetik.

Hori horrela, koadrilen asmoa da herri txikiteoa egitea 18:00ak artean, makala aldean dutela hartuta. 18:00etan, berriz, plazan elkartu eta makala igoko dute guztien artean.

Bestalde, lan horretan laguntzeko, gaztetxeok ezarriak freskatzeko "edari magikoa" eramango dute plazara koadrilendako.

Azken urteotan Elorregitik ekarritako makalak ez dira zuzen-zuzenak, entresaken eraginez haizeak okertu egiten ditu-eta

Herriko Plaza

Zapatua, 18:00etan

Ekainaren 23an koadrilen arteko bazkaria eta makalaren igoera izango dira

Koadrilen bazkaria eta kamisetak

Makala jaso behar den egunerako koadrilen arteko bazkaria antolatu ohi du Txosna batzordeak. Eta aurten ere egin dute deialdia. 14:30ean egingo dute bazkari hori, Uarkapen. Antolatzaileek abisatu dute komenigarria dela txartelak aurrez erostea. Saltzen ipiniko dituzte herriko tabernetan.

Gainera, kontuan hartuta aurten bazkari hori zapatuan egokitzen dela, parte-hartze handiagoa espero dute; beraz, adi ibili. Ekitaldi horretan eta makalaren igoeran nesken parte-hartze handiagoa eskertuko luketela ere adierazi dute, bestelako urteetan oso gutxi parte hartu izan du-eta. Bestalde, Txosna batzordeak iragarri du jaiari begira kamiseta bereziak salduko dituztela.

Uarkape jatetxea


Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta

San Juan zoriontsuak !

Otalora Lizentziaduna 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

JOSE ANTONIO
ILE-APAINDEGIA

Otalora 22 behe Tel.: 943 79 42 10 ARRASATE



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

San Juan jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

ZEZENAK

Errekortadoreen ikuskizuna izango da domekan

Gaztetxoei zuzendutako errekortadore eskola jarriko dute zezen-plazan martitzenean

EDU MENDIBIL

Joan zen urteko jaietan moduan, errekortadoreen ikuskizuna izango da San Juan Egunean. Debagoieneko hainbat lagun arituko dira.

Errekortadoreen ikuskizuna domeka arratsaldean izango da, 19:30ean hasita, eta Blas Cruz arrasatearrarekin batera honako hauek arituko dira txekorren aurrean: Unai Arana, Iker Agirre eta Aitor Jaso bergararrak, Ander eta Jokin Rodriguez zumarragarrak, Felipe Gascon zornotzarra, Asier Estarriaga iruindarra eta Bittor Amatrian zangotzarra.

Antolatzaileen arabera, jendeak ondo pasatzeko moduko ikuskizuna izango da Arrasaten ikusi ahal izango dena. Esate baterako, Iker Agirre quad motor batekin aterako da, eta, horrez gain, beste hainbat sorpresa egongo dira domekan. Aurtengo den-



Ibarreko hainbat errekortadore arituko dira domekako ikuskizunean.

GOIENKARIA

boraldian Debagoieneko errekortadoreek egingo duten lehen emanaldia izango da, Bergarako Pazkoetan egin beharrekoa bertan behera geratu baitzen eguraldiagatik.

GAZTETXOENDAKO ESKOLA
Jaietako martitzenean, ekainaren 26an, gaztetxoei zuzendutako errekortadoreen eskola jarriko dute zezen-plazan, goizez (11:00ak aldera) zein arra-

tsaldez, 18:30ean hasita. Toreatzaileek erabiltzen duten *karretoiarekin* praktikak egiteko aukera izango dute gaztetxoei, ibarreko errekortadore onenak alboan izango dituztela.

ELKARRIZKETA IÑIGO ALMORTZA

"Zezen-plaza beti betetzen da Arrasaten"

E.M.

Bergarako Zezenza-leak taldeko ardurduna da Almortza. Errekortadoreen ikuskizuna alaituko du, mikrofonoarekin. Saltsa guztietan murgiltzen den horietakoa da; ETB1eko *Kalaka* saioan tertulialia-kide dabil orain.



Iñigo Almortza.

GOIENKARIA

Zer behar da errekortadore ona izateko?

Ikasteko gogoia eta, nola ez, dohain fisiko batzuk beharrezkoak izaten dira plazara ateratzeko; bizkortasuna eta lasaitasun puntu bat tartean. Txekorren aurrean odola hotz izaten jakitea inportantea izaten da.

Zer moduzko giroa izaten da Arrasaten?

Oso ona. Entzierrotan eta zezenetan jende asko ibiltzen da. Eta zezen-plaza beti betetzen da.

Errekortadore eskola jarriko duzue.

Bai. Gaztetxoaren artean zaletasuna piztea da helburua.

Bea
Iturriotz kalea 4
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 05

BELEN MAIZTEGI

- Teleordainketa
- Enkarguak hartzen dira.

Laister markoztatzeak egingo ditugu.

Ondo pasa jaixak!

LORAK

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI · URDAITEGIA

Olarte kalea 20
ARRASATE

**Ondo pasatu
San Juan jaiak!**

HORTZ KLINIKA
UARKAPE
Nicolas Bermejo doktorea

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85


AMAGARA

Erdiko kalea 54. Arrasate. 943 79 09 09



ESTETIKA ZERBITZUAK

- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Estres kontrako masajea
- Solariuma
- Argizari eta elektriko depilazioa
- Brontzeatu artifiziala
- Hidromasajea...
- Mikropigmentazioa: ezpanak, begiak, bekainak
- Emakume eta gizonentzat laser depilazioa



MEDIKU KONTSULTA

- Gorputz mesoterapia: Zelulitisa, Sendotzea...
- Aurpegi mesoterapia: hialuroniko azidoa, betetzeak, VISTABEL(BOTOX)
- AHA Peeling-a: orbanal, aknea...




Arruabarrena doktorea. Elkargokide-zenbakia: 6.073

San Juan jai zoriontsuak!

R:P:S: 297/05

Ondo pasa San Juanak !!



Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura

EGUZKIGRAF

inprimategia

DRAGOI JANA

500 lagunendako lekua izango da Dragoi Janean

Aurrez edo egunean bertan erosi ahal izango dira afarirako txartelak, 12 euroren truke

UBANE MADERA

Herritar askok gustuko du San Juanetan egiten den Dragoi Jan berezian parte hartzea. Hala, 500 lagunendako afaria antolatu du AED elkarteak ekainaren 24rako, domekarako.

Enkargatu dituzte dagoeneko Dragoi Janerako txuleta bigun eta gozoak. 275 bat kilo, 500 lagunekin pentsatzen. Eguna eta ordua ere ipinita dituzte: ekainaren 24a, 21:00etan hasita.

Txartelak eros daitezke aurrez AED edo AEK elkar-teen egoitzetan edo Monte edo Iturri tabernetan. 12 euro kostako dira. Prezio

horren barruan ez dute sartu edatekorik. Bestalde, egunean bertan ere erosi ahal izango dira.

BERTAN ERRETAKOAK

Ohiturari jarraituz, plazan bertan erreko dituzte dragoi txuletok, boluntario finen laguntzarekin: AEKn, Zaharberri eta Mesedeetako Ama ikastetxean ibilitako ikasleak; guztiak, dragoi txuleta erretzen urte luzeko esperientzia duen Valentin Morenoren gidaritzapean. Txuletei laguntzeko, piperrak eta patatak ipiniko dituzte, eta postera-ko, gazta eta irasagarra.

Bapo afaldu eta gero, 23:00ak arteko afalostetxea prestatu dute antolatzaileek, AED elkar-terkoek. 23:00ak ingurura arte izango dira plazan, gero su artifizialak ikustera joateko.



laz moduan, aurtan ere euria bada afaria frontoian izango da.

GOIENKARIA

Herriko Plaza

Domeka,
21:00etan

Dragoi Janak ehunka lagun batuko ditu, herensugearen txuleten bueltan

'Mihiluze' lehiaketa, Dragoi Janean

Dragoi txuleta jateko aukera eskaintzeaz gainera, Dragoi Janerako giro berezia antolatzen ahalegindu izan da urtero AED elkarteak. Horretarako, besteak beste, animatzaileak ipintzen ditu, ekitaldia ondo baino hobeto girotzeko.

Hala, aurtan bi animatzaile izango direla iragarri dute. Sorpresa gorde nahian, ez dituzte izenak jakinarazi. Bai, ordea, jakinarazi dute afaria animatzeaz gainera, *Mihiluze* moduko lehiaketa prestatu eta gidatuko dutela bi lagun horiek.

Goza ezazu

aparteko

udaz



Nokia 5200

0€



Sony-Ericsson K610i

19€



LG Chocolate

0€

baita **Udako Unika Tarifaz** ere

dei guztiak, edozein ordutan eta edozein operadore-tara

0€/min

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15

Eibar

☎ 943 700 369

Biteri Plaza, 4

Arrasate

☎ 943 71 27 81

euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala

* Unika: Delaren ezarzte-kostua, 15 zent, estatuko finko eta mugikorretarako delatan. Hilean 1.000 minutuko muga, minutuko 0 zentimoan. Kontratututako Unikaren arabera, hileko gutxieneko konpromisoa ezarriko da, eta, muga horretara iristen ez bada, kobratu egingo da. 2007/06/21etik 2007/09/25era Unikan kontratatutako alta berrientzat balio du sustapenak. Sustapenaren amaiera-eguna, 2007ko irailak 30a. Euskaltel Hautaketa/Leihoko bezeroentzako PSPa eta sustapena, betiere ondoren ordaintzeko linea mugikor berri bat kontratatzen badute, hilean gutxienez 6 € (LG Chocolate-ren kasuan) edo 15 € (beste bi modeloen kasuan) kontsumitzeko konpromisoarekin, 18 hilabete irauteko konpromisoa. Muga: 50 unitate ale bakoitzeko. Jakinarazpen honetan adierazten diren prezioei dagozkien zeharkako zergak aplikatu behar zaizkie: Penintsula eta Balear Uharteak: BEZa (% 16). Kanariak: IGI-Cetik salbuesita. Ceuta: IPSI (% 3). Melilla: IPSI (% 4).

KONTZERTUAK

Gose eta Vanexxa izango dira domekan

Gose taldeak 'Gose' izeneko diskoko kantuak egingo ditu; Vanexxak, pop-rocka eta rap nahasketa egingo du

AMAIA ZALDUA

Arrasateko Udalak antolatuta, Gose talde arrasatearraren eta Vanexxa bakarlari madrildarraren musikaz gozatzeko aukera izango da aurtengo jaietan.

Bi kontzertuak Monterron parkean izango dira, 23:30ean. Ines Osinagak esandakoaren arabera, (Gose taldeko ahotsa eta trikitilaria), "beti eskaintzen dugun kontzertua eskainiko dugu, baina etxean", eta hauxe gainera-

tu du: "Etxean beti da kontzerturik bereziena eta plazazarik zailena".

GOSE TALDEA

Gose izenburuko diskoko abestiak joko ditu taldeak domekan Monterronen.

Gose ezagun egin da, besteak beste, *Eutsi!* filmeko kantu nagusia egin delako eta Carlinhos Brown kantariaren telonero edo hasierako talde izan delako.

Musika talde horrek trikitia eta elektronika batzen ditu. Oro har, erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak egiten dituzte, baina denetarik jotzen dute: elektro-jazzaren tankerako abestiak, tangoa,



Irudian, Vanexxa madrildarra.

GOIENKARIA

sehaska kantua, afro-brasiljar perkusioak, techno, punka eta hardcorea, arinarina eta abar.

Talde arrasatearrak euskal trikitiaren kultura irauli du. Bestalde, testuak

lizunak dira eta askatasun osoz esandako esaldiak aurki ditzakegu abestietan.

Euren lehen diskoak *Gose* izena du eta 2005ean grabatu zuen Iñaki Bengoak Arrasateko Shot estu-

dioan. La Pollako, Doctor Deseoko, Ekoneko eta SAko abeslariak ere parte hartu dute disko horretan. Gose plazeraren musika argazki bat da. Tente edo etzanda entzuteko. Dantzarako proposamena.

VANEXXA

2006an kaleratu zuen *O se rompe o se raja* izeneko diskoa eta orduz geroztik oihartzun handia izan du Vanexxak.

Haren izenaren bi XX horiek Vanexxaren atze-

Monterron parkea

**Domekan,
23:30ean**

Arrasateko Gose taldeak eta Madrilgo Vanexxak egingo dute emanaldia

an zerbait misteriotsua dagoela adierazten dute, helduentzat bakarrik den musika egiten duela. Haren estiloa sexuari lotuta egoteaz gainera, oso gogorra ere bada.

1992an, 16 urte zituela, pop musika utzi -*Recuerdos de mi adolescencia* disko-, eta hip-hop kritikoa iraditu zion.

Se rompe o se raja Txileko esatera bat da, eta esan nahi du *orain ala inoiz ez*.

Hark egiten duen musika deskribatzeko orduan, askotariko estiloen nahasketaz hitz egiten da. Pop musikaririk gozoena, kaleko rap femeninoa, punka eta rocka uztartzen dira diskoan.

Musikaren esparruan lan ugari egin ditu Vanexxak: konposatzen, letrak egiten eta baita abesten ere.

Ez da musika eduki duen lanbide bakarra, aktore ere izan baita: antzerki alternatiboa egin izan du, eta John Malkovich, Joaquín Oristrell eta Juanma Bajo Ulloaren zuzendaritzapean lan egindakoa da.

Artista madrildar hori Mala Rodriguezekin partekatzen izan dute, eta Su Ta Gar taldekoekin kantu bat egin du.

Bi musika taldeak berritzaileak dira: Gosek trikitia eta elektronika nahasten ditu; Vanexxak, berriz, pop musika raparekin uztartzen du

MAYTE

LORADENDA

Otalora kalea, 18
20.500 Arrasate
Tel.: 943 77 14 65
www.goiena.net/blogak/mayte

Astelehenetik ostiralera: 9:30etik 20:00etara
Larunbatetan: 9:30etik 16:00etara
Eguerditan zabalik egoten da.

King's

Ile apaindegia

Zarugalde 23. ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ARPE

Ile apaindegirako artikuluak

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA

ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE



Iker, zure irribarreak gurekin jarraitzen du

Telleria kalea 2
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 43
Faxa: 943 71 21 43
ekide@ekide.es



*Paraje eder
baten kokatua*



*Atsedenerako
behar den
guztiarekin*



*Enpresa
bilerak
egiteko leku
egokia*



*Dasta ezazu
gure menurik
goxoenak*

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

NAGUSIEI OMENALDIA

Herriko nagusiak omenduko dituzte San Juan Egunean

80 urtetik gorako arrasatearrek luntxa izango dute eta opari bana emango diete, San Juan Egunean, Abaroan

AINTZANE IRIZAR

San Juan jaietan, herriko nagusienek ere izango dute eurei zuzendutako ekitaldirik. 80 urtetik gorakoek Udalaren aldetik omenaldia jasoko dute San Juan Egunean, eguerdian.

Urteroko ohitura bihurtu da herriko nagusiendako, 80 urte beteta dituztenendako, Udalaren omenaldia jasotzea herriko jai nagusienetan. Eta aurten ere izango dute euren ekitalditxo. Abaroan izango da hori, ekainaren 24an, 12:30ean.

Omenaldian parte hartzeko izena eman behar izan dute eta oraindik ere badago horretarako aukerarik. Berez, gaur, hilak 19, da horretarako azkeneko eguna. BAZera (Biztanleen Arreta Zerbitzua) jo behar dute interesa dutenek, nortasun agiriarekin. Gogoratu, bestalde, beharrezkoa dela Arrasaten bizi zatea.



Nahikoa jateko eta edateko aukera izango dute Abaroan.

LUNTXA ETA OPARIAK

Udalak eta Abaroak parte hartu nahi duten nagusi guztiendako luntxa antolatzen dute. Nahikoa jateko eta edateko aukera egoten da; askok bazkari moduan

Arrasaten 80 urtetik gorako 1.195 herritar daude: 425 gizonezko eta 770 emakumezko

hartzten dute luntx hori. Ekitaldian, alkateak eta hainbat zinegotzik parte hartuko dute.

Omenaldian parte hartzen dutenen artean emakumezko nagusienak eta

gizonezko nagusienak omenaldi berezi jasoko dute. Emakumezkoak lore-sorta bat jasoko du alkatearen eskutik; gizonezkoak, berriz, txapela.

Gainerako parte-hartzaileak ere ez dira esku hutsik joango; izan ere, urtero jasotzen dute opari txikiren bat. Iaz, esaterako, aterki txiki bana eman zieten guztiei; beste urte batzuetan, boligrafoak, giltzatarakoak eta abar jasoz izan dituzte. Aurten zer jasoko duten ez digute esan; sorpresa, beraz.

JENDE GUTXIAGO

Azkeneko urteotan geroago eta jende gutxiagok parte hartu du omenaldian. Iaz, esaterako, 100 bat lagun joan ziren; horietatik 25 lagun Iturbide egoitzakoak. Aurten ere joango dira. Joan ezin diren Iturbideko egoiliarak, baina, ez dira ezer gabe geratuko, oparitxoak helaraziko diete. Udalean eman dizkiguten datuen arabera, 1.195 arrasatear daude 80 urtetik gorakoak; horietatik, 425 dira gizonezkoak eta 770 emakumezkoak.

GOIENKARIA

Maier
Estetika Zentroa

Zarugalde 5 ARRASATE
Tel.: 943 79 10 06



- Laser-fotodepilazioa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Brontzeatua izpi ultramorerik gabe
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Aurpegi-garbitzetak
- Gorputz-esfoliazioak
- Manikura eta pedikura

- Makillajea
- Depilazio elektrikoak.
- Lifting-a
- Masajeak:
 - Lasaitzailea
 - Kiromasajea
 - Zainak biziberritzea
 - Drainatzea
- Btile-luzapenak.

RICHI
Ile apaindegia

Zarugalde 5 ARRASATE Tel.: 943 79 10 06

- SPA (Aromaterapia tratamendua)
- Etxez etxeko zerbitzua
- Irudi-aholkulari pertsonalizatua
- Koloreak arropetan, ilean, orrazkera eta makillaje mota aholkatzen dizkizugu!!



Carrascal aroztegia

SUKALDEKO ALTZARIAK
HORMA-ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

EKUTIO KALEA 4, PAB. 14-15
URIBARRI AUZOA
20500 ARRASATE
Tel/fax.: 943 79 01 82
scarrasc_@infonegocio.com

Zeure neurrira, zeure gustura



ONDO PASA SAN JUANAK!



Jatetxeak, Tabernak, Kafetegiak, Parkeak,
Dendak, Banketxeak, Sukaldeak, Bainuak,
Barrualde zein kanpoaldean
BERRIKUNTZAK

Zuzendaria: Carlos Rodrigues (629 533 499)
Soraya Arquero (679 455 764)



Basabe poligonoa 4, EO-11 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 51 / 608 772 867 Faxa: 943 77 15 03
e-mail: construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

KILIKI ETA ERRALDOIAK

Erraldoiek 'Viva la Pepa' dantzatuko dute Arrasateko bandaren kontzertuan

Monterronen

**Domekan,
13:00etan**

Arrasate Musikaleko bandaren kontzertuan erraldoiek hartuko dute esku

Orain dela bi urte moduan, Arrasate Musikaleko bandak erraldoiak izango ditu lagun; kontzertuan, erraldoiek bi pieza dantzatuko dituzte

XABIER URTZELAI

Arrasateko Erraldioen eta Kilikien Konpartsak egubakoitzean hasiko du San Juanetako jarduna; Errementari Dantzan hartuko dute esku. Zapatuan, berriz, merezi duten protagonismoa izango dute, sorpresa eta guzti.

Maritzu Kajoi egunean ez genuen kiliki eta erraldorik ikusi, ezta Aratusteetan ere. Hori horrela, San Juanetan herritarrek gozoz hartuko dituzte kiliki eta erraldoiak, urtero moduan. Izan ere, konpartsa horrek harrera oso ona du herritarren artean: "Jende asko etortzen da erraldioen atzetik, giro oso polita egoten da", esan digu konpartsak kide Zigor Masipek. Hori bai, elkarrekin geroago eta zailtasun handiagoak ditu, jende faltan daude eta.

ERREMENTARI DANTZAN

Hortxe hasiko dute konpartsakoek aurtengo San Juanetako jarduna: "Zapatuan, erraldoiak Errementari Dantzan aurretik joango dira, dantzariak duten koreografia jarraitu-

ta". Kiliki eta erraldoiak Herriko Plazaraino joango dira, dragoiak sua zelan pizten duen gertutik ikustera.

Domekan, berriz, 11:00etarako kalean ikusiko ditugu kiliki eta erraldoiak: "Herriko Plazan hasiko dugu ibilbidea, eta, urtero moduan, San Juan parrokiatik Abaroara egingo dugu. Hor, baina, oraindik obratan daude, eta zehazteke daukagu nondik nora egingo dugun. Bestela, Abaroan egingo dugu lehenengo balsa, eta handik Seber Altubera egingo dugu, bigarren balsa dantzatzera". Arbolapetan dantzatuko dute hirugarrena, eta Herriko Plazan laugarrena: "Azkeneko dantzaldia *Polonesa* da: musikak lagunduta erraldoiek etengabe itzuliak ematea".

Konpartsakoek konfirmatu diguten moduan, egun horretarako sorpresa polita daukate prestaturik, euren emanaldia osatuko duena. Horretarako, baina, domekara arte itxaron beharko da.

HANDIK MONTERRONERA

12:00ak inguruan dantzatuko dute Herriko Plazan azken balsa, eta erraldoi eta kilikiek Monterronerako bidea hartuko dute.

Han, orain dela bi urte moduan, Arrasate Musi-



Aurten ere Arrasateko kaleetan zehar ikusiko ditugu konpartsako lau erraldoiak, kilikien konpainian.

GOIENKARIA

kaleko bandak eskainiko duen kontzertuan hartuko dute parte. Lore Gazteak taldeko dantzariekin eta gaitariekin batera, erraldoiek bi abesti dantzatuko dituzte, zaleen gozamenerako: *Aitziber eta Jon* izeneko balsa eta *Viva la Pepa* Tuterako jota.

Astelehenean atsedean hartuko dute, eta martitzenean berriro ere lanera itzuliko dira: "Azken eguneko irteeran ibilbidea aldatu egingen dugu apur bat".

Konpartsak geroago eta zailtasun handiagoak ditu

"Kiliki eta erraldoiek herritarren artean duten harrera ona ikusita, pena da jende faltan ibiltzea". Hori da Masipek esan diguna. Taldean 20 lagun dira, baina hori ez da nahikoa: "Arrasaten urtean lau hitzordu izaten ditugu, eta azken denboraldian bi hitzordutan kale egin dugu, Maritzu Kajoi egunean eta Aratusteetan. Errementari Dantzan hamar lagun irtengo gara erraldoiekin,

eta San Juan Egunean 15 lagun baino ez gara izango. 26an, berriz, gutako asko lanean ibiliko dira".

Konpartsako kideek hainbat dei egin izan dituzte jendea animatzen, eta orain ere zabal-zabalik daude ateak: "Oraingo egunotan Saiolanen izango gara entseatzeko, eta nahi duenak bertan ikusi ahal du zer den erraldoiekin dantzan egitea".

Ondo pasa San Juanetan!

Sikol

LENTZERIA

Olarte 31 ARRASATE Tel.: 943 79 89 32



PINTURA LEHIAKETA

San Juan bezperan pintura lehiaketa izango da

Arrasateko Margo Taldeak antolatuta, aurten hirugarren edizioa ospatuko dute: Herensugea lehiaketa, hain zuzen

ARANTZAZU EZKIBEL

San Juan bezperan, urteko bizipen txar guztiak sutara botatzeko egunean ospatuko dute arrasatearrek pintura lehiaketa; 40 lagun espero dituzte antolatzaileek.

Ohiko bilakatzeko bidean da Arrasateko pintura lehiaketa. Aurten, San Juan bezperan, ekainaren 23an ospatuko dute Arrasate Margo Taldeak antolatzen duen Herensugea pintura lehiaketa. Esan bezala, aurtengoa hirugarren

aldia izango da. Orain dela hiru urte hasi ziren Arrasateko margozaleak lehiaketa antolatzen, eta, aurreko bi edizioetan parte-hartzaile kopurua ezberdina izan bada ere, aurten 50 parte-hartzaile espero dituzte. Hala adierazi digu Felix Aialak, Arrasateko Margo Taldeko kideak: "Lehenengo urtean 40 lagun elkartu ginen; iaz, parte-hartzaile kopurua txikiagoa izan zen: 22 margolari, hain zuzen. Aurten, egin dugun kanpaina ona dela-eta margolari gehiago etorriko direla espero dugu: 50 lagun, gutxi gorabehera". Bide batez, Arrasateko Margo



Arrasateko txokoak margotzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

GOIENKARIA

Taldekoek jendea lehiaketan parte hartzera animatu gura dute.

GOIZEKO 8ETATIK 10ETARA
Ekainaren 23an, goiz gutxia izango dute margola-

riek euren pinturak egiteko. Izena emateko epea, berriz, goizeko 8etatik 10etara izango da; parte-hartzaileek Tamayo paperdendan eman beharko dute izena. Han, mihiseak zigi-

latuko dizkiete. Aialak adierazi duenez, "parte-hartzaile bakoitzak bere materiala eraman beharko du".

HERRIKO KALEETAN

Gero, parte-hartzaile bakoitzak nahi duen tokia aukeratu ahal izango du; betiere, kontuan hartuta lehiaketa Arrasateko alde zaharrera mugatzen dela.

Pinturak bukatu eta aurkezteko ordua 13:30etik 14:30era izango da. Sari banaketa Monterron jauregian egingo dute.

Izenematea goizeko 8etatik 10etara egingo da Tamayo paperdendan; pinturak aurkezteko epea, berriz, 13:30etik 14:30era izango da

Herriko kaleak Goizean, pintura lehiaketa

Ekainaren 23an jokatuko dute III. pintura lehiaketa herriko kaleetan

Iaz, Leioara eroan zuen saria Reyesek

Aurreko bi aldietan, parte-hartzaile gehienak kanpotarrak izan dira. Iaz, esaterako, pintura lehiaketako sari nagusia Leioara eroan zuen Jose Reyes Ramosek (1.500 euro eta txapela); bigarrena (750 euro) Raimundo Argos bilbotarra izan zen; eta hirugarrena (420 euro), Jon Idigoras ermuarra. Herriko lan onenaren saria Valentin Aranarendako izan zen (350 euro).

Aurtengo aldirako ere sari ugari prestatu ditu Arrasate Margo Taldeak: lehen hiru sailkatuek 1.500 euro, 750 euro eta 420 euro jasoko dituzte eta arrasatear onenak, berriz, 300 euro. Sari banaketa egunean bertan izango da, ekainaren 23an, 18:00etan, Monterron jauregian.



Hilarion
jatetxea-taberna

Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak

Larrea plaza 5 Tel.: 943 77 01 69

UGARTE

**Industria
hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

- Bainujantziak
- Sandaliak neurrira egindako plantillekin
- Gurpil-aulki elektrikoak eta eskailerak igotzeko aulki igogailuak
- Oheak eta abar.



Orto-Lagun

Kontzezino kalea 2 ARRASATE Tel.: 943 79 89 34

arbolapeta



ZABALA
oinetakoak

59 urtean elkarrekin ibili gara

Ospa ditzagun San Juanak!
Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

Jai zoriontsuak!!!

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

MUSIKA

Nueva Alaska, gustu eta adin guztietarako orkestra

Urte asko daramatzate dantzaldiak egiten Arrasaten eta Debagoiengan, eta aurten ere ez dute hutsik egingo

MIRIAN BITERI

Urteak daramatza Nueva Alaska orkestrak Arrasaten jotzen. Errepertorioan estilo askotariko musika dute, nagusi zein gazteendako.

Lau bat orduko kontzertua eskainiko du astelehenean Zaragozako taldeak, Herriko Plazan. Hasieran, pertsona nagusiendako klasikoak eta musika dantzagarriak joko dituzte, betiko moduan.

Plazan biltzen direnak gorputza mugitzen hasiko dira orduan, merengearen, salsaren, mexikarren eta antzeko estiloen bitartez. Bikoteak plaza erdira aterako dira, nork bere trebezia erakusteko asmoz. Batzuek ederto egingo dute.

MOMENTUKO MUSIKA

Ondoren, atsedendaldi laburra egin, eta gazteendako musikari emango diote txanda Nueva Alaskakoek: "Momentuan gehien entzuz-



Adin guztietako pertsonak biltzen dira Herriko Plazan dantza egiteko.

GOIENKARIA

ten diren abestiak jotzen ditugu, pop eta rock estilo-koak", adierazi du taldeko kantari Angel Las Herasek.

Gustura dator orkestra Arrasatera eta baita Debagoieneko beste herrietara

20 lagunek osatzen dute orkestra; 15ek agertoki gainean egiten dute lan eta gainontzekoek, teknikari

ere: "Plaza beti beteta izaten dugu, jendea oso atsegina da eta dantza egitea gustatzen zaio", dio kantariak. Arrasaten, adibidez, zortzi edo hamar alditan izan dira jotzen.

Herriko Plaza

**Astelehena
22:30ean**

Aurten 20 urte bete ditu orkestrak, eta hamar bat aldiz egon da Arrasaten

Urte asko daramatzate Nueva Alaska taldekoek Espainiako eta Euskal Herriko plazak girotzen. Aurten, 20 urte bete ditu orkestrak. Haien esanetan zorte handia dute, musikatik bizi dira-eta.


Urtero 130 bat dantzaldi egiten dituztela jakinarazi du Angel Las Herasek. Neguan ere ez dira geldirik egoten. Zortzi emanalditik gora dituzte urtero. Eta atsedetik ez dute izango aurtengo udan, egutegia beteta dute-eta.

20 LAGUN

Pertsona askok osatzen dute Nueva Alaska. Dantzaldi bakoitzean hogeitau lagunek egiten dute lan; horietatik, 15ek agertoki gainean. Gainontzekoak teknikariak dira.


Munduko hainbat txokotakoak dira taldekideak. Aragoikoa ez ezik, Valentzia, Nafarroa, Toledo, Argentina, Txile eta Errumaniako jendea ere badago.

Nueva Alaska gustuko duenak astelehen gauean dauka hitzordua jarrita, Herriko Plazan.



MERENDERUE

Tel.: 973 77 15 86



*San Juanetan
etxean nahi ditugu!
Aski da!*


Ondo pasa jaiak



Barceló
VIAJES BIDAIAK

• **ARRASATE-MONDRAGÓN:**
Maalako Errebala, 31
Tel.: 943 797 011

Bidaiari bat, bidaia bat



Lore

Lurrindegia eta
estetika zentroa

Olarte 10 • ARRASATE
943 79 52 50



Lorenzo M. Joosten m.s.

Medikuntza naturalean espezialista (Erreg. zenb. 9700118) eta Espainiako Federazio medikuntza alternatiboko lehendakariordea. (FEMALT).



- **Akupuntura** (Txinatarra, Japoniarra eta Korearra (Orratzik gabe))
- **Buruko mina, muskularra eta hezurretakoa**
 - **Insomnioa, estresa eta menopausia**
 - **Masajeak** (Tuina - Sihatsu - Moxa)
 - **Alergiak eta defentsen handitzea**
 - **Haurren hiperaktibitatea**
 - **Sinusitisa**
 - **etab.**

Aldez aurretik deitu txanda hartzeko.

Ondo pasau San Juanak!



Arrasate Pasealekua, 29 Ezker behea Arrasate Tel.: 653 133 281 • 943 792 913

CONSTRUCCIONES ALKESA,S.L.

ONDO PASA SAN JUANAK!

TEILATUAK (ESTALKIAK),
FATXADAK ETA EGITURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
BIRGAITZEAK
ERAIKUNTZAK
ERA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZA LANAK
PROMOZIOAK
IGOGAILUAK

Santa Marina 40-42 behea
20500 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 77 13 27
Mugikorra: 639 82 83 32
alkesa@infonegocio.com



SAN JUANETAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA



KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIETA



ERREFUXIATUAK



ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz, Jai-Zale, Muxibar, Dat

ERREMENTARI DANTZA

San Juan bezperan herriko dantzariak nagusi

Herriko dantzariak eta musikariak 21:30ean irtengo dira eta plazan egingo dute Errementari dantza

OIHANA ELORTZA

San Juan bezperan, ekainaren 23an, egingo dute aurten ere Errementari Dantza. 1993an egin zuten lehenengoz, Jose Ramon Vitoriak bultzatuta.

Euskal Herriko beste dantza batzuek solstizioarekin lotura zutela-eta, Santamas eta San Juan jaietarako dantza asmatzen hasi zen Jose Ramon Vitoria. Haren ideiekin eta dantzarien laguntzarekin, Txerri Dantza sortu zuten negura-

ko 1991n eta Errementari Dantza 1993an. Harrezkerro, urtero dantzatu izan dute San Juanetan. Errementariak, burdina eta dragoiaren inguruko ipuinak izan dira pieza hori egiteko oinarriak.

Beste behin, Bizkai aldeko koloretako txalekoak jantzita aterako dira mutil dantzariak eta alkanadora zuriekin neskak -XIX. mendeko diseinuak-.

Plazara heltze direnean, Ingurutxo eta Polka dantzatuko dituzte lehenengo eta San Juan Dantza azkenik.

Suaren inguruan izango da hori guztiori, jakina.



Musikak eta dantzak bat egingo dute herriko kaleetan, eta gero, plazan, suaren bueltan.

GOIENKARIA

ELKARRIZKETA XELI ARREGI LORE GAZTEAK

"Jende gehien erakartzen duen ekitaldietako bat da"

O.E.

Xeli Arregik urtero hartu du parte Errementari Dantzan. Aurten ere ez du hutsik egingo.

Zenbatek hartzen duzue parte guztira?

Auskalo: bandakoak, gaitariak, txistulariak, bes-

te instrumentu batzuk jotzen dituztenak eta dantzariak. Aurten 20 bat bikote aterako gara. Muga dago jarrita 50 bikote baino gehiago ez sartzea plazan. 50 bikote baino gehiago garenean, batzuk plazatik kanpo gelditzen dira.

Denok batera entseatzten duzue?

Hilaren 16an entsegu orokorra egin genuen, bai-

na aurretik, dantzariok, esaterako, CDak jarrita entseatzten dugu.

Ze adinetako jendeak hartzen duzue parte?

Gutxi gorabehera, 14 urtetik gorakoek. Gehienek errepikatu egiten dute.

Dantzak urte gutxi ditu, baina ondo errotu da San Juan jaietan.

Jendeak asko estimatzen du dantza hori; jende



Xeli Arregi.

gehien erakartzen duen ekitaldietako bat da. Plazara bete-beteta egoten da, eta hori pozgarria da, oso pozgarria.



AYLA

ONDO PASAU SAN JUANAK!!!

Erdiko kale 42
Arrasate
943 79 23 04



MUSIKA

Toom Pak-ek birziklatuak zertan erabili erakusten du

Ordubeteko perkusio emanaldi dibertigarria eskainiko du astelehenean bosteko madrildarrak Monterron parkean

Monterron parkean

**Astelehenean,
22:30ean**

Madrilgo perkusio talde horrek birziklatutako materialak erabiltzen ditu

MIRIAN BITERI

Toom Pak perkusio taldeak Monterron parkean joko du astelehen gauean. Birziklatutako materialak erabiltzen ditu ikuskizuna osatzeko.

San Juanetako jaien egitarauan, ikuskizun berezia eta originala egongo da astelehen gauean Monterron parkean. Toom Pak perkusio taldearen emanaldia, hain zuzen ere.

Birziklatutako materialak erabiltzen ditu. Naturarekin loturiko elementuek ikusleen arreta bereganatzen dute, hala nola suak eta urak. "Ikuskizun berezia da, non perkusioa nagusitzen den, baina beste ikuspegi batetik ulertuta dago hori", azaldu du taldeko kide Manuel Lealek.

INSTRUMENTU BEREZIAK

Denetarik erabiltzen dute Toom Pak taldekoek soinu erritmikoak eratzeko. Bidoi arrunt bati, adibidez, sekulako garrantzia ematen diote. Paperezko eta plastikozko poltsek, makilek eta autoen llantek euren tokia dute. Gorputza bera ere erabiltzen dute. Edozein objektuarekin perkusioa egiten dute.



Toom Pak talde madrildarra, emanaldietako batean.

GOIENKARIA

Irakaslea da eta perkusioarekin loturiko hainbat egitasmotan parte hartu izan du, bai Espainiako Estatuan eta baita Europa osoan ere.

Georgekin batera, Israel Mendez, Gorka Gonzalez, Manuel Leal eta Felipe Dueñas madrildarrak daude. Guztiek lotura zuzena dute musikaren eta perkusioarekin. Urteak daramatzate irakasle, eta baita hainbat taldetan parte hartzen ere. Sariak jasotzen hasi dira azkenaldian.

EUROPA OSOAN

Europa osoan dabilza kontzertuak eskaintzen. Euskal Herrira ere behin baino gehiagotan etorriko dira datozen hilabeteotan. Hilaren 22an, adibidez, Iruñean izango dira eta hurrengo egunean Boluetan.

Lehen aldia da Arrasatera datozela. Hauxe adierazi du Lealek: "Monterron parkeko agertokian guztia emango dugu". Ikuskizun "atsegingarria" ikusi gura duenak, beraz, badaki nora joan astelehenean.

**Ikuskizun atsegingarria ikusi gura duenak Monterronera joan baino ez du astelehenean,
22:30ean**

Bost pertsonaz osatuta dago Toom Pak, kolaboratzaile ugari dituen arren. Rares Georgek taldea eratu zuen, orain dela lau urte inguru. George Errumaniakoa da, Murgestikoa.

1907 tik,...

Maalako Errabala, 3
20500 ARRASATE
Telf-Faxa:
943 791262

Casa Ceciaga

Lentzeria
Mertzeria
Puntuzko osagaiak

Jai zoriontsuak opa dizkizugu!

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

TOR BELARDENDA

**Aitor
Belardenda**

**ONDO PASA
JAIK!**

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

San Juanetan zatoz geurera

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Mendiola auzoa
943 71 43 45

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

SAN JUAN SUA

Gau motz baina bizienari ongietorria egiteko sua

Herriko Plaza.

**Zapatuan,
22:30ean**

Plaza jendez beteko da, izan ere, jaietako une berezia izaten da hori.

Arrasatearrondako oso berezia da plazan piztutako sua, herriko jai nagusiei hasiera ematen dielako

IKER BARANDIARAN

Errementari Dantzak inguratuta eta heren-sugeak lagunduta, sua piztuko dute Herriko Plazan gauean. Une berezia da hori herritarrondako.

Zapatu gauean, San Juan bezperan, sua piztuko dute Herriko Plazan, antzina-ko ohiturari jarraituta. Errementari Dantzarekin batera, sua izango da plazako protagonista nagusia.

Errementari Dantza sortu aurretik, sua 22:30ean pizten zuten Herriko Plazan eta San Juanen gaineko dantza egiten zuten.

Gerora, Errementari Dantza sortu zutenetik, suaren inguruko ekitaldiak aldatu zituzten.

OHITURA ALDATUTA

Aspaldian, bestelako egitaraua antolatzen dute suaren inguruan. Lehenik eta behin, Errementari Dantzaren ingurutxoak egingo dute Herriko Plazaren inguruan. Horren ostean, dragoiaren laguntzarekin sua piztuko dute. Bitartean, dantzariak San Juan zortzikoa egingo dute. Horretarako, txistulariek eta Arrasateko Musika Eskolako bandako musikariek lagunduko dituzte.

Behin sua piztuta, ohitura da, baita ere, alkateak Errementari Dantzarako propio sortutako dantza egitea. Ia urtero egin ohi dute dantza alkateek, baina azken urteotan izan dira bi salbuespen: Jose Mari Loiti alkate izan zenekoa eta iaz, Inazio Lakuntza ez zen udaletxetik plazara dantza egitera jaitsi. Orain dela bi urte, berriz, Lakuntzak dantza egin zuen batutako herritarren aurrean.

ESANAHI UNIBERTSALA

Herriko jai nagusien hasiera irudikatzen du ekintza horrek. Arrazoi horregatik, gau hori arrasatearrondako oso berezia den arren, San Juan gauak esanahi handia du munduko herrialde askotan. Hain zuzen ere, gau horretan edo horren inguruan udako solstizioa hasten da. Urteko gaurik motzena da; eta horrek sinbologia handia dauka antzinako kultura askotan, Euskal Herrikoan barne.

San Juan gauak egunen iraupena laburtzen hasiko dela iragartzen digu; eta, aldi berean, hori dela urteko egunik luzeena, argi ordu gehien izango duena. Hala, udaren iristearekin batera egunak mozten hasiko dira. Eta horren ostean, abenduan, egunak luzatzen hasiko dira berriro ere.



Herritar asko batzen dira San Juan bezperan Herriko Plazan, Errementari Dantza eta sua ikusteko.

GOIENKARIA

Baina erlijio kristauak San Juan gaua sortu eta hura ospatzen hasi aurretik, munduko hainbat zibilizaziok ere ospatzen zuten egun eta gau hori. Hain zuzen ere, udako solstizioa ospatzen zuten.

Solstizio gauean herritarrak suaren inguruan biltzen ziren, su, bero, argi eta bizitzaren sinbolo moduan. Gau hartan garrantzitsua zen elikagaien elkartrukea egitea, eta elkartasuna lantzea.

Gerora, erlijio modernoek solstizio gauean inguruan kokatu zituzten euren jai egun nagusiak. Eta udako solstizioari San Juan gaua deitu zioten; neguko solstizioari, berriz, Santa Luzia.

Hala, solstizioa ospatzea ohitura paganoa zen; kristautasuna heldu aurretiko euskal mitologiako ohitura. Garai hartako herriak eguzkiaren eta ilargiaren arabera bizi ziren, naturarekin lotuta.

Azkeneko urteotako ohitura da herriko alkateak, sua piztu ahala, Herriko Plazan bertan dantza egitea

San Juan jaia sortu aurretik, gau berezi hartan udako solstizioa ospatzen zuten gure arbasoek, mitologiako usadioekin lotuta

**EZ DAGO PLASTIKOZKO BASOAN
ZERBITZATUTAKO GARAGARDO BEROA
BEZALAKORIK.**

Zertara etorriko zara eguna pasatzera? taxuzko garagardoa hartzera: freskoa, edontzi zabalean, eta inportaziokoa? Nork nahi du jatetxe ona, 150 denda baino gehiago, dibertsiorako toki erraldoia? Zer gertatuko da, orduan, kalean jaten diren ogitartekoekin, zure semealabak non sartu diren jakin nahian zabilzala digeritzen diren horiekin? Eta zer diozu frijituen usaintxo horretaz, hankak zapaltzen dizkizutela sentitzearen xarmaz, arratsalde erdialdeko beroaz?

Egiozu mesedea zeure buruari, eta ez etorri Donibane jai hauetan... beharbada gustatu egingo zaizu eta!



HEGALUZE DASTATZEA

Arrain erreaz gozatzeko aukera aurten bigarrenez

250 bat kilo hegaluze prestatuko dituzte martitzenean; urteko gastuei aurre egingo dio Goikobaluk lortutakoarekin

MIRIAN BITERI

Iaz antolatu zuten lehen aldiz hegaluze dastatzea Herriko Plazan. Erantzun ezin hobea jaso zuten antolatzaileek, eta aurten berriro egitea erabaki dute.

Parrillan egindako hegaluzea probatu gura duenak Herriko Plazara joan besterik ez du martitzenean. Aurten, bigarrenez, hegaluze dastatzea antolatu du Eusko Label Kalitate Fundazioak, Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin. 250 kilo inguru ekarriko dituzte antolatzaileek Arrasatera; eskuz hartuak diren arrainak.

Gatza bota eta parrillan egiten jarriko dituzte. 12:30ean, lehen pintxo beroak saltzen hasiko dira, prezio sinbolikoan. Ardoa edo txakolinarekin batera aterako dute arraina, hobeto sar dadin. Ordu horietan,

hala ere, ez da askorik behar izaten, edozer jateko prest dago-eta gorputza.

Aurten, gainera, hegaluze-mendrezka dastatzeko aukera izango dute hara joaten direnek. Ekarrirako hegaluze kopuruaren arabera izango da mendrezkarena.

Goikobalu abesbatzako Joxe Mari Ganboak azaldu duenez, taldeko hamabost eta hogeit hamar artean izango dira pintxoak banatzen. 13:30ean hasita, lan handia izango dute laguntzaileek.

MILA PINTXOTIK GORA

Bi orduan, mila pintxo baino gehiago aterako dituzte, iazkoaren antzera; hamabost bat pertsona ibili ziren pintxoak banatzen eta aurten ere hantxe izango dira, ahal den guztian laguntzen.

Lehen edizioan lortutako diru kopuruarekin, Argentinara joan ziren Goikobalu abesbatzakoak urrian. Bidaia ordaintzen lagundu zuen hark.



Dastatzea Herriko Plazan izango da martitzen eguerdian.

GOIENKARIA

Aurten ateratzen duten diruarekin, berriz, urteko gastuak ordainduko dituzte. Hainbat bidaia dituzte aurreikusita, eta lortutakoaren zati bat horiek ordaintzen laguntzeko bideratuko dute. Material berria erosi dute eta lokal

**Martitzenean
1.000 pintxo
inguru
prestatuko
dituzte**

bat alokatu dute, txukundu egin behar dena: "Guztia ordaindu beharra dago", azpimarratu du Ganboak.

Martitzenean, beraz, hegaluzea gustuko dutenek hitzordua dute Herriko Plazan, pintxo ederrak zain izango dituzte-eta.

Herriko Plaza
**Martitzenean,
12:00-14:30**

Eusko Labelek 250 bat kilo prestatuko ditu, Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin

Datozen hilabeteetako irteerak

Hegaluze dastatzean ateratzen den dirua urteko gastuak ordaintzeko erabiliko du Arrasateko Goikobalu abesbatzak. Bidaietan diru nahikoa joaten da, behin baino gehiagotan mugitzen dira-eta abesbatzakoak. Eta beteta dute aurtengo egutegia; joan zen apirilean, adibidez, Andaluzian izan ziren.

Udazkenerako bi irteera dituzte aurreikusita. Irailean Bartzelonara joango dira. Oraindik guztiz zehaztuta ez badute ere, barikuan irten eta domekara arte iraungo du bidaia horrek.

Urri edo azaro aldean, berriz, Aranda de Duero izango dira abesten. Lehiaketa batean parte hartzeko gonbidatuak izan dira arrasatearrak.





arrasate optika

ONDO PASA JAIXETAN! Kontzeziño kalea 6 ARRASATE Tel.: 943 79 25 98 **GF FERRÉ**



Aurrez prestatutako jakiak

Aretxabaleta Tel.: 943 770612
gertujanariak@euskalnet.net
www.goiena.net/blogak/gertu



**San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu arrasatear guztioi!!!**



- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Ondo pasa jaixetan!

Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88
mondragon_cespa@cespa.es



Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@ euskalnet.net



**San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu
arrasatear guztioi!**



- Garajeko atek
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko agente tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



ELKARRIZKETA AMAIA TXINTXURRETA GOITB-KO AURKEZLEA

"Nire lana bukatzean festetan gelditu izan naiz"

AMAIA ZALDUA

Amaia Txintxurretak urtebete inguru egingo du GOITBko Jaiak programa aurkezten. Arrasateko San Juanetan kalean ibiliko da, eta urritik aurrera kantu-saio bat aurkeztuko du.

Nolatan hasi zinen GOITBn lanean?

Jendea behar zutela irakurri nuen, eta bertara agertu nintzen. Nire lana gustatu zitzairen, eta gero berriz deitu izan didate. Orain, gainera, *Debagoienean kantari* izeneko saioa aurkeztuko dut.

Kamera aurrean jartzeko lotsarik ez duzu?

Ez; txikitatik gustatu izan zait jendaurrean aritzea, bai kantuan, bai saio bat aurkezten.

Gogorra da zuk lan eta besteek jai egitea?

Ez pentsa, festetan dagoen jendeak giroan sartzen zaitu eta gustura egiten duzu lan. Inbidia pixka bat eman izan dit inoiz, baina behin lana egindakoa ere, geratu izan naiz parrandan...

Jaiekin lotura handia duzu?

Bai; festak aurkezteaz gain, plazetan ere aritzen naiz musika-talde batekin. Ohituta nago festetan lan egitera.

Zer diozu Mundumiraz?

Bertako antolatzaileek esan zuten moduan, bailaran kanpoko kultura ezagutzeko aukera da, eta baita kanpotarrek bailara ezagutzeko ere. Oso interesgarria iruditzen zait ekitaldi hori, kultura desberdinak uztartzen dituelako.



Amaia Txintxurreta

ARTXIBOA

San Juanetatik zer gustatzen zaizu gehien?

Dudarik gabe, San Juan sua da festa horietako gauzarik politena.

Nolakoa da zure lan egun bat?

Festak dauden herrira joan baino lehen, prestaketa lanak egiten ditugu:

gidoia, antolamendua eta abar. Egunean bertan, herri horretara joan, grabatu eta muntaketa egiten da. Askotan, jendeari lotsa ematen dio kamera aurrean agertzea, baina azkenean dena ondo ateratzen da.

Zer da *Debagoienean kantari*?

Bailarako haurrek telebistan eta jendaurrean euskaraz kantatzeko aukera izango dute, eta animatzeko dei egiten diegu.

"Txikitatik gustatu izan zait jendaurrean aritzea"

"San Juan sua da festa horietako gauzarik politena"

Irratia kalean izango da, eta kalea irratian

Arrasate Irratiak kalean ikusten den arabera saioa egingo du. Oraingoan, bi egunetan izango dira saio bereziak: ekainaren 25ean eta 26an. Goizeko 10etan hasi eta eguerdiko 12ak arte programa entzuteko aukera izango da. Arratsaldean, saioa errepikatuko da 14:00tan hasita.

Esatariak Jon Berezibar, Naroa Etxebarria eta Aitziber Aranburuzabala izango dira eta teknikaria, Gaizka Vitoria. Kalean gertatzen denaren ispilu izan gura du aurtengo saioak ere; beraz, mikrofonoa eskuan hartuta kale-konexioak egingo dituzte. Horrez gain, eguneko protagonistekin egingo dute berba esatariek, eta entzierroan ere izango dira.

Entzuleen telefonoa zabalik izango da: 943 71 17 31. Jaiei buruzko iritzia emateko, zozketetan parte hartzeko edo zorion agurra egiteko aukera izango da.



**OBRA AMAIERAKO GARBIKETAK
GARBITZE ETA MANTENTZE LANAK:
ENPRESAK
BULEGOAK
GARAJEAK
KOMUNITATEAK
ETA ABAR**

Gora San Juanak!

**Intxaurtxueta 16 behea ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45**

www.hemen-garbiketak.com

ELKARRIZKETA JUANMA GAY EN-MEDIO ENPRESAKO ARDURADUNA

"Aitzorrotz gailurreraino igo gara segway ibilgailuen gainean"

JON BEREZIBAR

Segway izeneko zutik gidatzeko bi gurpildun ibilgailuekin egiten du lan Eskoriatzako En-medio enpresak. San Juanean, hilaren 26an, martitzenean Biteri plazan egongo dira. Zirkuitu berezia gertatu dute ibilgailu horiekin jarduteko.

Nola okurritu zitzaizuen segwayekin enpresa bat sortzea?

Nafarroan txangoa egin genuen segwayekin. Inguru hartako naturan barrena ibili ginen, guretzat erabat berritzailea eta guztiz dibertigarria zen gailu baten gainean. Erabiltzeko benetan erraza zela konturatu ginen eta nahi bezala mugitzeko aukera ematen zuela, inolako ahaleginik egiteke.

Orain, baina, Debagoienara ekarri duzue ideia.

Idea hura hona ekarri genuen, eta, horrela, bertako inguruak promozionatzeko bidea ere izan zitekeela jabetu ginen. Egun-pasak antolatzen ditugu,

Eskoriatzako eta ibarreko txokoak ezagutzeko, eskaintza gastronomikoarekin eta inguruak ezagutzeko modu ezberdina eskaintzen.

Zenbateko abiadura har dezake?

Hasiberriendako orduko 10 kilometrora dago mugatuta, baina 20 kilometro orduko hartzera hel daiteke. Oso errazak dira erabiltzen, orekari ibilgailuak berak eusten dio eta; gorputza mugitu besterik ez dago erabiltzeko. Aldapak ere erraz-erraz igotzen ditu. Hain zuzen ere, oso ibilgailu egokia da mugitzeko zailtasunak dituztenentzat. Gu Aitzorretzera eta guzti igo gara segwayaren gainean, gailurreraino, arazo barik. Torremolinosen udaltzainek segwayz patruilatzen dute.

"Udaltzainek Torremolinosen patruilatzeke erabiltzen dute"

Lur orotakoa da beraz segwaya.

Guk daukagun modelo dagoen malguena da, edozein lurretarako balio du, quadek dauzkaten gurpilak dauzka, mendirako, hondartzarako, elurretarako... Gainera, ibilgailu ekologikoa da, kutsatzen ez duena. Momentuz, fabrikatzaile bakarra dago, Ameriketako Estatu Batuetako etxe bat, hain zuzen ere.

Erregaiaren beharrik ez du, ezta?

Motor elektrikoa dauka, bi bateriarekin elikatzen dena. 25-30 kilometroko autonomia du segwayak.

Zelakoa izango da Arrasateko erakustaldia?

Hainbat zirkuitu prestatuko ditugu ilararik sor ez dadin. Nahi duguna da jendeak ikus dezan zeinen erraza eta dibertigarria den ibilgailu hori erabiltzea. Hala ere, esan behar da ez dela haurrendako gomendagarria, nahiz eta iaioenak haiek izan ohi diren. 40 kiloko gutxieneko pisua behar da ibilgailu hori erabiltzeko. Guk geuk 12 urteko muga ipini ohi dugu.



Juanma Gay, segway baten gainean. Eskoriatzan daukate egoitza.

IKER BARANDIARAN

Ondo pasau jaixetan!



Karmele Bikuña eta Ane Lasagabaster

**ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA**



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

**Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate**

Goizez eta arratsaldez irekita

XAKEA ETA ARKU TIROKETA

Xakea eta arku tiroketa izango dira jaietan

Xakean, Leintz bailarako selekzioak Gipuzkoako selekzioaren aurka jokatuko du; lau partida jokatuko dira San Juan bezperan Arrasateko Biteri plazan

ARANTZAZU EZKIBEL

Hainbat kirol ekitaldi izango dira: batetik, xakea Biteri plaza berrituan; eta bestetik, arku tiroketa txapelketa Zaldibarko pilotalekuan.

Xake txapelketa eta arku tiroketa lehiaketa jokatuko dira aurtengo San Juan jaietan. Beste urte batzuetan bezala, Arrasateko jaiak kirola izango dute ardatz nagusi.

ZORTZI ELKARTE

Arku tiroketa lehiaketa ekainaren 24an jokatuko da, San Juan egunean, hain zuzen. Zaldibarko pilotalekuan zortzi elkarte elkartuko dira; gehienak Bizkaiko taldeak izango dira.

"Lehiaketa bizia eta erakarria izango da. Tiroa diena batera egin beharrean, hainbat objektutara egingo dugu. Hala, ikusleentzako erakargarriagoa izango da txapelketa", adierazi digu Arrasateko elkarteko Miguel Galbanek.

18 metroko distantziatik egingo dute tiro. Hain zuzen ere, talde bakoitzean hiru kirolari izango dira; lehenengo txanda jokatuta eta gero, lau talde lehiaketatik kanpo geratuko dira. Eta ikusleek kan-

poratutako talde horien materiala erabiltzeko aukera izango dute; haiek 5-7 metroko distantziara egingo dute tiro.

XAKEA BITERI PLAZAN

Leintz bailarako selekzioak eta Gipuzkoako selekzioak xake txapelketa jokatuko dute San Juan bezperan, arratsaldeko 5etan.

Selekzio bakoitzak hamar jokalaririk izango ditu eta lau partidu jokatuko dituzte; partiduak erdi bizkorrak izango dira.

Ekainaren 24an, arratsaldeko 6etan, Zaldibarren, ikusleek arku tiroketa egiteko aukera izango dute kanporatuta geratu diren taldeen materialarekin



Arku tiroketa lehiaketa zortzi talde arituko dira.

GOIENKARIA



Iaz, Leintz bailarakoak Donostialdeko selekzioaren aurka aritu ziren.

GOIENKARIA



IRUROK. S.L.
Eraikuntzak

Ondo pasa San Juanak!

Meatzerreka, 5-bis Tel.: 943 77 09 92 • Faxe: 943 79 78 14
Apto. 246 • ARRASATE e-posta: irurok@irurok.com



**Berehalako
janari goxoa**

**PAK DONER KEBAB
TXOHAN**

- Eramateko eskaera egin dezakezu
- Aukeratu pikantearekin edo pikanterik gabe

Ferrerias kalea, 34
ARRASATE
Tel.: 662 55 24 25

PILOTA

Aurten ere lehen mailako pilotariak izango dira

Olaizola II.a eta Argote bikotea Bengoetxea VI.a eta Zearra bikotearen aurka arituko da nor baino nor gehiago

Uarkape

Pilota partidu profesionalak

Ekainaren 25ean, astelehenean, izango dira Arrasateko Uarkape frontoian

ARANTZAZU EZKIBEL

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere pilota jaialdia antolatzearabaki du Udalak; puntako pilotariak izango dira Uarkapen.

Astelehenean, hilak 25, pilotazaleek San Juanetako hitzordu erakargarriena izango dute, puntako pilota jaialdia. Aspaldiko partez iaz egin zuten pilota jaialdia Uarkapen eta aurten, iazko arrakasta ikusita, berriro ere pilota Uarkapera eramatea erabaki dute.

OLAIZOLA-BENGOETXEA

Hala, iaz ere gurean izan zen Aimar Olaizola izango da Uarkapen San Juanetako pilota jaialdian. Buruz buruko finala jokatu berri duen pilotariak Argote izango du bikotelagun atzeko koadroetan. Aurkariak, berriz, Bengoetxea VI.a eta Zearra izango dira. Aurreko koadroetan lehia polita ikusteko aukera izango da:



Aimar Olaizolak Bengoetxea VI.a izango du aurkari.

GOIENKARIA

Oinatz Bengoetxearen eta Aimar Olaizolaren artekoa, hain zuzen. Iazko lehiaketan bezala, aurten ere aurreko koadroetan arituko dira Goizueta eta Leitzako pilotariak. Labri-

Sarrera 15 eurotan jarri dute; diru horren truke, bi partidu ikusteko aukera egongo da Uarkapeko frontoian

teko pilotalekuan estreinaldia egin zuenetik, gorpuzkeran aurrera egin duen pilotaria da Leitzakoa. Olaizolak gogor egin beharko du lan Bengoetxea VI.a makurrarazteko.

Lehia bizi eta polita izango da aurreko koadroetan.

SARRERA 15 EUROTAN

Pilota jaialdia arratsaldeko 5etan hasiko da. Norgehiagoka nagusiaren aurretik, baina, beste partidu bat jokatu dute: Saralegi eta Apraiz, Mendizabal I.aren eta Oteizaren aurka. Bi partiduak ikusteko sarrera 15 eurotan egongo da.

Profesionalen arteko lehia erakargarriak izango dira Uarkapen jokatu direnak.

ARRASATEKO PILOTARIAK

Arrasaten, pilota zaletasuna aspaldikoa da. Aurten, gainera, herriko pilotari gazteak lan txukuna egiten ari dira herri arteko txapelketan.

Azkoitiari irabazi ondoren, Ataungo pilotarien aurka jokatu dituzte finalerdietako partiduak arrasatearrek. Eta, Ataun atzean utziz gero, Arrasatekoek ekainaren 24an jokatu dute herri arteko txapelketako final nagusia.



CANAS - ESTEBAN

ERAIKUNTZAK

San Juan jai zoriontsuak
arrasatear guztioi!

Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 77 11 63. Faxa: 943 79 81 80

ARRASATE MUSIKALEKO MUSIKA BANDA

Jaietara egokitutako saio alaiak egingo du bandak

Arrasate Musikaleko bandako kideek Arrasateko gaitarien eta erraldoi eta kilikien konpartsaren laguntza izango dute

MONIKA BELASTEGI

San Juanetako hitzordu garrantzitsua bilakatu da, urteen joan-etorrian, Arrasate Musikaleko musika bandaren emanaldia. Aurten ere ez diete hutsik egingo zaleei.

Iker Olazabal Arrasate Musikaleko musika bandako zuzendariak badaki zale ugari joango direla domekan Monterronen egingo duten emanaldira. Egun horretarako propio prestatu duen egitarauaren osagarriak batik bat bi direla azaldu digu: "Kontuan hartu dut jaietan gaudela eta horregatik egitarauak alaiak izan behar zuela; eta arrazoi berarengatik, aukeratutako obrek oso luzeak ez zutela izan behar". Hala, ondoko koadroan ikus daitezkeen bederatzi piezako egitaraua prestatu dute Olazabalek zein bandako musikariek: egitarau alaiak eta kalitatezkoa.

GOIZETIK EGUERDIRA

Goizean jarriko da martxan musika banda. 11:00etan kalejira hasiko dute herriko kaleetan barrena. Eta ohiturari jarraituz, 11:15ean, Arrasateko gaitari eta erraldoi eta kilikien konpartsako kideekin batuko dira Seber Altuben. Han, *Aitziber eta Jon* jota eskainiko dute, eta gero, Monterronerantz abiatuko dira guztiak.

Bandaren emanaldia 13:00etan hasiko da, D. Shostakovitch-en *Jazz suite*-rekin. *Aitziber eta Jon* eta *Viva la Pepa* jotak iristean batu egingo zaizkio bandari gaitariak eta herriko dantzariak eta konpartsako erraldoi eta kilikiak dantzaziko dituzte.

Emanaldiari bukaera emateko erabat arrasate-



Irudian, Arrasate Musikaleko musika bandak iazko San Juan jaietan egindako emanaldia Iker Olazabal zuzendaria buru dutela.

GOIENKARIA

arrak diren bi obra egingo dituzte: Artzamendik konposatutako *Gora Arrasate* ereserkia eta hark moldatutako *San Juan*.

Banda, gaitariak eta konpartsa batu, eta 'Aitziber eta Jon' eskainiko dute 11:15ean Seber Altuben

Kontzertuaren egitaraua

Jazz suite	1. March / 2. Waltz nº 2	D. Shostakovitch
Ivanhoe		B. Apperment
Aitziber eta Jon		T. Muxika
Car	1. Ford 26	M. Peeters
Zorba		M. Theodorakis
Viva la Pepa		M. San Miguel
Kumbayah		K. Vlák
Gora Arrasate		J. Artzamendi
San Juan		J. Artzamendik moldatuta

RESUSTA *Karririkiri*

Arrasatearren artean 150 urte baino gehiago.



Ondo pasa San Juanak!

TERNUA

non gogoa, han zangoa

ASTORE

THE ACTION SPORTSWEAR

Ondo pasau jaixek !!!

TERNUA.COM ASTORE.ES

**belaunaldiz belaunaldi
herriko sena landuz**

*gora arrasate,
gora san juan*

JMA



Ehume
Apainketa

Garibai, 8 · Tel: 943 77 11 48 · 20500 ARRASATE